Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Mari Karmen Irazu Treku

Lezo, Gipuzkoa (1949)



Aurkibidea

Biografia



Lezon jaioa, Darieta ("Daita") baserrian. Aita Lezokoa zuen eta ama, berriz, Larraulgoa. 17-18 urte zituela Errenteriara joan zen bizitzera gurasoekin. Ezkondu zenean, Lezora itzuli zen.

Zintak

LEZ-106

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Kazabon, Mattin
- **Data**: 2022-02-16
- **Iraupena**: 46 min

- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Jaio zenekoa

- **Erref**: LEZ-106/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:04:16. **Bukatu**: 00:06:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Txikitan erdi gaixo egon zen urte askoan. Etxean jaio zen. Auzoko amonaren eta bere izebaren laguntzarekin jaio zen; medikua lo zegoen ondoko gelan. Ordukoa kontatzen du.

2. Errenteriko azokara letxugak saltzera

- **Erref**: LEZ-106/006
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Lekariak egunero jaten zituzten eta baratzekoa ere jaten zuten. Kilometro eta erdi zeukaten kaleraino. Igandetan salda egiten zuten baina jatordua antzekoa izaten zen. Erosketak egitera batzuetan Lezora eta hurrengo Errenteriko azokara joaten ziren; igandetan ere izaten zen azoka han. Joaten zen bera ere letxugak saltzera, asko bazituzten. Erregateatu egiten zuten.

3. Garbigailua dohainik eta ezin hartu

- **Erref**: LEZ-106/007
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:15:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Etxean ez zuen lan askorik egiten. Eskolatik etorritakoan oiloak "kontzen" aritzen zen. Amak baserriaren aurreko aldean zegoen toki egoki batean garbitzen zituen arropak. Garbigailua dohainik probatzeko aukera izan zutenekoa kontatzen du.

4. Bertsopaperak eta Basarriren irratsaioa

- **Erref**: LEZ-106/008
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:15:02. **Bukatu**: 00:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aita bertsotan aritzen zen bizarra egiten zuenean. Bertsopaperak erosten zituen Errenterian, mezetatik ateratakoan. Basarriren programa entzuten zuten irratitik. Telebista jarri zutenerako, hogei urte inguru zituela dio.

5. Batzuek hika, beste batzuek zuka

- **Erref**: LEZ-106/009
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:17:13. **Bukatu**: 00:19:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Aitak hika egiten zion, amak zuka. Errenterian lokutorioan ordua eskatu eta amak ahizpei deitzen zien; haiek bazeukaten telefono bana etxean. Ama ahizpa zaharrena zen. Lehengusu-lehengusinek zuka egin izan diote. Osabak hika egiten zion.

6. Eiarako zerrautsa eta kizkurrak, bideetarako "eskarabilla"

- **Erref**: LEZ-106/013
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:23:11. **Bukatu**: 00:27:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Bizilagunekin harreman ona zeukaten. Aitak zerrautsa eta kizkurrak (egur-txirbilak) ekartzen zizkien eiarako osaba-izebei. Bideak auzolanean konpontzen ziren; gurdibidea eta bide-zidorra izaten ziren elkarren ondoan. "Eskarabilla" (guztiz erre gabeko ikatza) botatzen zuten bidean. Gurdibidean harriak ipini behar izaten zituzten, lohia egiten zelako. Gurdiaren gurpilak egurrezkoak izaten ziren.

7. Intsusa, ziabelarra eta osina

- **Erref**: LEZ-106/016

- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:30:08. **Bukatu**: 00:33:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Ukendua egiten du intsusarekin, errearentzat. Nola egiten duen azaltzen du. Ziabelarra biltzen du; "katarro-belarra" esaten dio. Lehortu, txikitu eta egosi egiten da, katarroarentzat. Osabak osinaren ura hartzen zuen, odola mehetzeko.

8. Urteko ospakizunak

- **Erref**: LEZ-106/019
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:37:50. **Bukatu**: 00:40:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Eguberrietan familiarekin elkartzen ziren. Mutilak gabon-eskean irtetzen ziren. Santa Ageda baserrietan ez zela izaten dio. Urte zaharretan afaria egiten zuten. San Juanetan sua egiten zuten; bizilagunak kandelak jartzen zituen, arto landareen gainean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com